



## HEZKUNTZA-LANERAKO AHOLKUAK ETA FITXEN ERABILERA

### *Norentzat dira fitxak?*

Fitxetan egiten diren proposamenak eta sartu ditugun edukiak boluntario- edo solidaritate-taldeetara zuzentzen dira, talde horiek eskolekin lotuak, aisialdiarekin lotuak edo beste era batekoak izan daitezkeelarik.

Nolanahi ere, uste dugu eskoletan DBHko azken zikloko eta batxilergoko ikasleekin erabil daitezkeela fitxak; hau da 14 urtetik aurrera.

Ikasle gazteagoekin lan egiteko aukera ere badago, betiere edukiak eta proposamenak talde horietara egokituta.

### *Saioak hasteko:*

Gure proposamena da eztabaida sorraraziko duten galderak egitea lehendabizi, fitxaren edukian sartu aurretik. Lehenengo, gaia landuko duten pertsonak alde aurretik dituzten ezagutzak lantzea komeni da. Hori dela eta, bi galdera hauek proposatzen ditugu:

- 1.- **Zer dakite gai zehatz horri buruz?**
- 2.- **Zer hitz, herrialde edo kontzepturekin erlazionatuko lukete?**

Proposamenarekin batera datozen girotzeko posterrak erabiltzea komeni da, egoeran jartzeko eta argibideak emateko.

*\* Egiten ditugun galderen bidez jakingo dugu zer dakiten.  
Hitz egitera animatuko ditugu, eta dakitena izan dadila abiapuntua.*

### *Laburpen gisa eta saioak ixteko:*

Saioak ixteko eta gaia lantzean ateratako ondorioak, ezagutzak edo akordioak finkatzen laguntzeko, bi proposamen egiten dira.

Batetik, saio-hasierako galderak osatuko ditugu, ikasitako guztiaren argazkia egiteko. Bestetik, saioan atera ditugun funtsezko alderdiak edo ideiak bilduko ditugu nolabait (papelografoan, zatar-paperean edo arbelean) eta ahal bada, konpromiso bat gehituko dugu.

Konpromiso hori zabala edo pertsonalagoa izan daiteke; sakonago ikertzea izan daiteke, ikasitakoa inguruan hedatzea, edo jarrera aldatzeko beste proposamen zehatz batzuk egitea, eta abar.

### *Sakontzeko eta taldean lantzeko:*

Fitxa bakoitzean, proposamenen zatian, jarduera bat dago eta denak desberdinak dira.

Proposatutako jarduera desberdinek lanerako argibideak eman diezazkigukete, lantzen ari garen fitxa (gaia) edozein dela ere. Hau da, fitxa bateko gaia landu dezakegu, eta beste fitxa batean proposatutako jarduera egin gai horrekin.



**ALBOAN**

Jesuitek bultzatutako Fundazioa  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

-en proiektu bat



**GATAZKARIK  
GABEKO  
TEKNOLOGIA**

lortzeagatik

[www.gatazkarikgabekoteknologia.org](http://www.gatazkarikgabekoteknologia.org)